

KONTINENTEAK, GEOGRAFIA IZEN NAGUSI BATZUK ETA HERRITARREN IZENAK

Europa:

Ipar Europa
Hego Europa
Ekialdeko Europa
Mendebaldeko Europa
Erdialdeko Europa.

Asia:

Asia Txikia.

Eurasia.

Afrika.

Amerika (1):

Ipar Amerika
Hego Amerika
Erdialdeko Amerika.

Ozeania:

Antartika (baina adjektiboa denean “Antartiko”: “Ozeano Antartikoa”. Bide beretik
“Ozeano Artikoa”).
Ekialde Hurbila.
Ekialde Urruna.

europar

asiar

eurasiar

afrikar

amerikar (2)

ozeaniar

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995eko abenduaren 29an onartua)

(1) Geografia zentzu hertsian kontinenteari Amerika deitu arren, horrek ez du eragozten, hizkuntza mintzatu eta idatzian pluraleko formak ere erabiltzea (*Ameriketara joan nintzen, Ameriketatik etorri da...*) inguruko erdaretan egin ohi den bezala: *Hacer las Américas, Irse a las Américas, Aller aux Amériques, il vient des Amériques...*

(2) *Amerikano* hitza ere bada, noski, eta aspaldian Europatik Ipar Ameriketara bizimodu hobe baten bila joandakoa aipatzeko erabiltzen da: *osaba amerikanoa, euskaldun amerikanoak...* Ameriketara, orohar, joandakoari *indiano* esan ohi zaio.